



**EBAZPENA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ
AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA EGITEN BAITA ENPRESEI
INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN
DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO.**

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituen dekretu-proiektua egiten hasteko asmoa du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan 1. apartatuan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektu eta erakunde adierazgarrien iritzia jasotzeko honako hauei buruz:

- Arauaren beharra eta egokitasuna
- Helburuak
- Konpondu nahi diren arazoak
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak

Hori dela eta, xedapena egin aurreko kontsultaren izapidea bete nahi da, arauak eragindako herritarrek eta gainerako erakundeek parte hartzeko eta arauari ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Horregatik guztiatik, kontsulta:

- Erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei zabaltzen zaie, bai eta etorkizuneko araudi horren eraginpean egon daitezkeen erakunde, entitate edo elkarte guztiei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratuko da.
- Hamabost egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta beren entitateek egokitze jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten dena. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 8. artikulutik 11. artikulura bitartean arautzen den prestaketa-fasearen barruan.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ





Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Kontsulta publikoaren izapidea egitea, proiektua egin aurretik, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituen xedapen orokor baten proiektuarena.

Bigarrena.- Arauak eragindako herritarrek eta erakundeek, hala nahi badute, ebazpen honen eranskinean planteatutako alderdiei buruzko iritzia helaraz ditzakete hamabost egun balioduneko epean, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz,

Sinadura elektronikoa,

Sin.: Nicolás García-Borreguero Uribe
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria

ERANSKINA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIAREN EBAZPENARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA EGITEN BAITA ENPRESEI INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO.

I- Arauaren aurrekariak.

Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE), Autonomia Estatutuaren 11.1.a) artikulua arabera, bere gain hartu du ingurumena eta ekologia babesteko kudeaketa-eskumena, hau da, ingurumenaren arloko Estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatu eta betearaztea, hargatik eragotzi gabe babes-arau gehigarriak ezartzeko ahalmenak.

Autonomia Estatutuaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoari aitortutako eskumenak garatzeko arrazoia ingurumena ulertzeko borondate kolektiboa zehaztu beharra da, ingurumen-politikaren helburu komunak hierarkizatuz, eskumenak antolatuz eta, horretarako, prozedura eta tresna egokiak diseinatzuz. Azken batean, ingurumen-baliabideak babesteko araubidea ezarri behar da, administrazioaren esku-hartzea arautu behar da ingurumenean eragina duten jardueren dagokienez, zehapen-araubidea barne, eta formula bideragarri berriak bultzatu behar dira, bizi garen gizartean ingurumenaren babesari epe labur, ertain eta luzera ekiteko.

Esparru horretan, otsailaren 4ko 15/1992 Dekretua onartu zen, enpresei ingurumenaren arloan dirulaguntzak emateko oinarritzko arauak ezarri zituen.

Europar Batasunaren (EB) ondorengo araudiak araudi autonomikoa egokitzea eskatu du, bai ingurumenaren arloan, bai estatuak ingurumenari ematen dizkion laguntzen arloan. Esparru horretan, zenbait dekretu autonomiko onartu dira, hala nola apirilaren 23ko 91/2002 Dekretua eta urriaren 19ko 260/2010 Dekretua.

Gaur egun, indarrean dago 202/2015 Dekretua, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei emandako dirulaguntzak arautzen dituen.

II- Arauaren beharra eta egokitasuna.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, oinarri arautzaileak onartzea alde aurreko baldintza da dirulaguntzak emateko prozedura bideratzeko.

2022ko otsailaren 18an, "Klimaren, ingurumenaren babesaren eta energiaren arloko 2022ko estatu-laguntzei buruzko jarraibideak" dokumentua argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.

Dokumentu horretan jasotakoaren arabera, gidalerro hauek ordeztu egiten dituzte 2014-2020 aldirako Ingurumena eta energia babestearen arloko estatu-laguntzei buruzko gidalerroak, eta Batzordeak jarraibide berri horiek aplikatuko ditu klimaren, ingurumenaren babesaren eta energiaren arloan jakinarazi beharreko laguntza guztien bateragarritasuna ebaluatzeko, 2022ko urtarrilaren 27tik aurrera emandakoak edo ematea aurreikusita daudenak.

Esparru horretan, Batzordeak proposatzen du estatu kideek alda ditzatela, behar izanez gero, ingurumena eta energia babesteko laguntzen egungo araubideak, jarraibide hauetara egokitzeko, beranduenez 2023ko abenduaren 31n.

Bestalde, kontuan hartu behar da 2023ko abenduaren 30ean indarrean jarri dela Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea, zeinaren xedea baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek kudeatu eta eman behar dituzten dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzea. Arau hori 2023ko abenduaren 30ean jarri zen indarrean.

Azken xedapenetako lehenak indarraldi mugagabea duten oinarri arautzaileak egokitzeko araubidea zehazten du, eta adierazten du oinarri arautzaile horiek lege berrian xedatutakora egokitu beharko direla hogeita lau hilabeteko epean, lege hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta epe hori igaro eta egokitzapen hori gauzatu ez bada, indargabetutzat jo beharko direla.

Enpresei ingurumenaren arloan inbertsioak egiteko laguntzen deialdiaren oinarri arautzaileak mugagabeak dira, eta, beraz, dirulaguntzen arau berriaren aurreikuspenetara egokitu beharko dira 2025eko abenduaren 30a baino lehen.

III- Arauaren helburuak.

Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarriko ditu egin nahi den arauak.

Funtsean, honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Dirulaguntzen araubidea Europar Batasunak ingurumenaren arloan emandako jarraibide berrietara egokitzea.
- Jaurlaritzaren programetan eta planetan jasotako ingurumen-politikarekin bat datozen proiektuak sustatzea. Honako hauek dira:

- Karbono gutxiko ekonomiarantz irmoki aurrera egitea, enplegua sortzeko eta industria- eta teknologia-garapenerako aukera gisa.
 - Enplegu berdea eta berrikuntza sustatzea ekonomia zirkularren eremuan.
 - Hondakinak murriztea eta haien birziklapena eta balorizazioa handitzea.
 - Uraren eskuragarritasuna, kalitatea eta kudeaketa jasangarria bermatzea.
- Laguntzak emateko prozedura sinplifikatzea.

IV- Konpondu nahi diren arazoak.

Laguntza-deialdi hauetan parte hartzen duten erakundeek planteatu ohi duten gaietako bat prozeduraren eta bete beharreko dokumentuen konplexutasuna da, eta horiek aztertuko dute laguntzak emateko prozedura sinplifikatzeko aukera.

V- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Dekretu-mailako arau berri bat onartuz soilik arautu daiteke laguntzak emateko gai hori, eta, beraz, gaur egun indarrean dagoen araubidea egokitu egingo da 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa, eta klimaren, ingurumenaren babesaren eta energiaren arloan (2022) estatuaren laguntzei buruzko jarraibideak onartu ondoren sortu den egoera berrira.